

2025/05/16tik aurrera gertatutako zergagaiei APLIKAGARRIA.

A) Taldeak bereizten dira kausatzailearekin, dohaintza-emailarekin* edo aseguruak kontratatzen edo hartzen duenarekin dagoen ahaidetasunaren arabera:

I. taldea: Ondorengo ahaideak eta adoptatuak, ezkontidea edo izatezko bikote-laguna, maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera osatutako izatezko bikoteak direnean, aurreko ahaideak edo adoptatzaileak. Pertsona adoptatuekin parekatzen dira harrera iraunkorreko egoeran edo adopzio aurreko batean dauden pertsonak, eta adoptatzaileekin parekatzen dira familia harrera iraunkor bat edo adopzio aurreko bat egiten dutenak, kasu bietan baldin eta harrera horiek legedia zibilaren arabera eratu badira.

II. taldea: Odolkidetasun bidezko 2. eta 3. mailako zeharkako ahaideak, eta ezkontza bidezko aurreko eta ondorengo ahaideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikotetik eratorritakoak barne (anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, aita-amaginarrebak, suhiak, errainak....).

III. taldea: 4. mailako zeharkako ahaideak, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako zeharkako ahaideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteetatik eratorritakoak barne, maila urrunagokoak eta arrotzak (lehengusuak, koinatu-koinatak, ezkon-ilobak...).

B) Murrizpenak ahaidetasunagatik:

B.1) Herentzietan, legatuetan edo bestelako oinordetza tituluetan: I. taldea: 400.000 euro; II. taldea: 16.150 euro; III. taldea: 8.075 euro.

B.2) Bizitza aseguruetan: I. taldea: 400.000 euro; II. taldea: 16.150 euro, eta gainerako zenbatekoaren %25; III. taldea: 8.075 euro.

- Aseguru kolektiboetan eta enpresek enplegatuen alde kontratatutakoetan, aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasuna hartu behar da kontuan. - Murrizpenaz gozatu ahal izateko, polizan aurreikusitako egoera gertatu baino gutxienez bi urte lehenago hitzartua behar du izan aseguruak, hura modu kolektiboan hitzartu ez bada behintzat. - Jasotako kopuruak terrorismo ekintzak nahiz nazioarteko giza edo bake laguntzako misio publikoetan emandako zerbitzuak direla medio hitzartu diren bizitza-aseguruen ondorio direnean, 100eko 100eko murrizpena egingo da.

C) Bestelako murrizpenak:

C.1) Gertatzen bada eskualdaketa egin aurreko bi urteetan eskuratzailerak eskualdatzailearekin batera bizi izan dela eta etxebizitzaren jabari osoa, usufruktua, jabetza soila, azalera eskubidea edo erabiltze eta biztantzze eskubidea kosturik gabe eskuratzen duela "inter vivos" edo "mortis causa" modalitateetan, eskurapenak %95eko murrizpena dauka zergaren oinarri ezargarrian, 220.000 euroko mugarekin. - Elkarrekin bizi izanaren beharkizuna frogatzeko, erroldatze agiria eta epe horretan elkarrekin etenik gabe bizi izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dira, beti ere zuzenbidean onartutako beste frogabide bat erabiltzea eragotzi gabe.

C.2) Minusbaliotasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoa duten pertsonen eta mendetasun egoeran daudenek (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan murrizpenerako eskubidea ematen dutenak) "mortis causa" egindako eskurapenetan 80.000 euroko beste murrizpen bat aplikatuko da, ahaidetasunagatik aplikatu litekeenaz aparte.

C.3) Hildakoaren ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikote-lagunak, aurreko ahaideak edo adoptatzaileak**, ondorengo ahaideak edo adoptatuek**, edo hirugarren gradurainoko zeharkako ahaideak «mortis causa» eskuratzen badituzte banakako enpresa bat, negozio profesional bat, entitateetako partaidetzak edo haien gaineko gozamen eskubideak, eta eskurapen horiei aplikagarri bazaie Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespena, eskurapenak 100eko 95eko murritzapena izango du zerga oinarrian, betiere eskuratutakoari 5 urtez eusten bazaio, kausatzailea hiltzen denetik aurrera, salbu eta eskuratzailerak epe horretan hiltzen denean edo enpresa edo entitatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen denean. -Eskurapenak eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz egiten badira kausatzailea oraindik bizirik dela, aurreko paragrafoan aipatu den 5 urteko epea

eskualdaketa gertatzen den unetik aurrera zenbatuko da. -Testamentu-ahalordeaz baliatuta egiten diren eskurapenetan, aurreko lehen paragrafoan aipatu den 5 urteko epea ahalordea baliatzen den unetik aurrera zenbatuko da. - Aurreko paragrafoetan aipatutako entitateetako partaidetzak eta horien gaineko gozamen eskubideak eskuratzen direnean, murriztapena kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer proportzio duten elkarren artean jarduera ekonomikoari lotutako aktiboen balioak –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxituta– eta entitatearen ondare garbiaren balioak; hala behar denean, erregela horiek berak aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukitzaileen partaidetzen balioa zehazteko. - Apartatu honetako lehen hiru paragrafoetan aipatutako eskurapenari eusteko baldintza ez bada betetzen, ordaindu beharko dira murriztapenagatik zergan ordaindu ez den zatia gehi berandutze interesak. - Apartatu honetan jasotako murriztapena aplikatzeko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauaren 6. artikuluko lehenengo apartatutik seigarrenera bitartean ezarritako beharkizunak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena gertatzen den unean bete behar dira. Zehazki, 6. artikuluaen bigarren apartatuko d) letran aipatzen den baldintza kausatzaileen edo, hala badagokio, bigarren apartatu horretako c) letran aipatutako ahaidetasun taldeko pertsonaren edo pertsonen errenta zergaren autolikidazioan bete beharko da, eta autolikidazio horrek kausatzailea hil den zergaldikoa izan beharko du beti.

C.4) Ezkontideak edo izatezko bikote-lagunak (2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratuak), aurreko ahaideek edo adoptatzaileek**, edo ondorengo ahaideek edo adoptatuek** «inter vivos» eskuratzen badute banakako enpresa bat, negozio profesional bat edo entitate-partaidetza bat, eta eskurapenari aplikagarri bazaio Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespena, orduan eskurapen horrek 100eko 95eko murriztapena izango du zergaren zerga oinarrian, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Dohaintza-emaileak hirurogei urte edo gehiago eduki behar ditu, edo ezintasun iraunkorreko egoeran egon, dela absolutua dela baliaezintasun handikoa.

b) Dohaintza emailea zuzendaritza lanak egiten ari bada, lan horiek egiteari eskualdaketa unetik bi urteko epean uztea eta ordainsari gehiagorik ez jasotzea.

c) Dohaintza-hartzaileari dagokionez, dohaintzaren eskritura publikoa egin ondorengo 5 urteetan bere esku mantendu behar du eskuratutakoa, eta Ondarearen gaineko Zergati buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean araututako salbuespenerako eskubidea izango du, non eta epe horretan ez den hiltzen edo enpresa edo entitatea ez den likidatzen konkurtso-prozedura baten ondorioz. Halaber, dohaintza-hartzaileak ezin izango du egin erabilpen egintzarik edo sozietate eragiketarik, zuzenean edo zeharka eskurapenaren balioa nabarmen murriztu dezaketenean.

- Entitateetako partaidetzen eskurapenetan, murriztapena kalkulatu da kontuan hartuta zer proportzio gordetzen duten elkarren artean jarduera ekonomikoari atxikitako aktiboen balioak –jardueratik eratorritako zorren zenbatekoarekin gutxituta– eta entitatearen ondare garbiaren balioak; hala behar denean, erregela horiek berak aplikatuko dira partaidetutako entitateen partaidetzen balorazioan ere, haien entitate edukitzaileen partaidetzen balioa zehazteko.

- Apartatu honetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, ordaindu beharko dira murriztapenaren ondorioz ordaindu ez den zerga zatia eta bidezkoak diren berandutze interesak.

- Apartatu honetan jasotako murriztapena aplikatzeko, dohaintza-emaileak oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren sortzapena gertatzen den unean bete behar ditu Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 6. artikuluko lehen apartatutik seigarrenera bitartean aurreikusten dituen beharkizunak. Dena den, 6 artikuluaen bigarren apartatuko d) letrako baldintza bete beharko da dohaintza-emailearen edo, hala badagokio, bigarren apartatu horretako c) letran aipatutako ahaidetasun taldeko pertsonaren edo pertsonen errenta zergaren autolikidazioan, eta autolikidazio horrek eskualdaketa egin aurreko lehen zergaldikoa izan beharko du beti.

C.5) 36 urtetik beherako zergadunen alde ezkontideak, izatezko bikotekideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek eskudirutan egindako dohaintzak, izan ahaidetasuna odolkidetasunagatik, ezkontzagatik, izatezko bikotearen eraketak ekarritako harremanarengatik, adopzioagatik edo harrera iraunkorragatik, 100eko 100eko murriztapena izango dute zerga oinarrian, betiere dohaintza hartzaileak ohiko etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko egiten badira. Jasotako dohaintzen

gehieneko zenbatekoa, dohaintza hartzaile bakoitzari artikuluko honetan xedatutakoa aplikatzeko eskubidea ematen diona, 30.000 eurokoa izango da.

baldintza hauek bete beharko dira: a) Zerga honen autolikidazioa aurkeztea foru arau honen 69.1 artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitako epean, eta hari dokumentu publiko edo pribatu bat eranstea bertan espresuki adierazita dohaintzan emandako zenbatekoa dohaintza hartzailearen ohiko etxebizitza erosteko ematen dela. Horrekin batera, eskualdaketa frogagiria ere aurkeztu beharko da. b) Dohaintza hartzaileak 2 urteko epean eskuratu behar du etxebizitza, dohaintzaren egunetik zenbatzen hasita, edo, ondoko ondoko dohaintzak egonez gero, lehen dohaintzaren egunetik hasita.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzak betetzen ez badira, ordaindu beharko dira murriztapenaren ondorioz ordaindu ez den zerga

* Honako hau aplikatzen da 1999-01-01etik aurrerako ondorioekin: **ondasun eta eskubideak eskuratzen badira ondorengo ahaideen edo adoptatuen**** alde egindako dohaintza edo inter vivos egindako doako beste edozein negozio juridiko erabiliz, eta eskurapen horren aurreko lehen bost urteetan beste ondorengo ahaide edo adoptatu batek aurreko ahaide edo adoptatzaile** baten alde eskuratu baditu ondasun edo eskubide berberak dohaintza edo inter vivos egindako doako beste edozein negozio juridiko erabiliz, eskurapen hori lehen dohaintza-emaileak azken dohaintza-hartzailearekin duen ahaidetasuna kontuan hartuz zergapetuko da.

**** Pertsona adoptatuekin parekatzen** dira harrera iraunkorreko egoeran edo adopzio aurreko batean dauden pertsonak, eta adoptatzaileekin parekatzen dira familia harrera iraunkor bat edo adopzio aurreko bat egiten dutenak, kasu bietan baldin eta harrera horiek legedia zibilaren arabera eratu badira.

I. TARIFA / I. TALDEA: %1,5

II TARIFA / II TALDEA			
Oinarri likidagarria, gehienez Euroak	Kuota osoa Euroak	Oinarriaren gainerakoa, gehienez Euroak	Tasa marginala %
0	0,00	8.200	5,70
8.200	467,40	16.390	7,98
24.590	1.775,32	16.390	10,26
40.980	3.456,94	40.990	12,54
81.970	8.597,08	81.970	15,58
163.940	21.368,01	245.990	19,38
409.930	69.040,87	409.740	23,18
819.670	164.018,60	1.229.460	28,50
2.049.130	514.414,70	Soberakina	34,58

III TARIFA / III TALDEA			
Oinarri likidagarria, gehienez Euroak	Kuota osoa Euroak	Oinarriaren gainerakoa, gehienez Euroak	Tasa marginala %
0	0,00	8.200	7,60
8.200	623,20	16.390	10,64
24.590	2.367,10	16.390	13,68
40.980	4.609,25	40.990	16,72
81.970	11.462,78	81.970	20,52
163.940	28.283,02	245.990	25,08
409.930	89.977,31	409.740	29,64
819.670	211.424,25	1.229.460	35,72
2.049.130	650.587,36	Soberakina	42,56